

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

4764

EBAZPENA, 2025eko urriaren 8koa, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez ingurumen-inpaktuaren adierazpena formulatzen baita proiektu honi buruz: «Alonsotegi Basauri 2» / «Basauri Güeñes 2» zirkuitu bikoitzeko 220 kV-eko aireko linea elektrikoa aldatzea, T-1 eta T-17 eta T-14 eta T-18 euskarrien artean, Alonsotegi eta Bilbo udalerrietan (Bizkaia).

AURREKARIAK

2025eko apirilaren 10ean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (70. zk.) argitaratutako iragarkiaren bidez, Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak jendaurrean jarri zituen «Alonsotegi Basauri 2» eta «Basauri Güeñes 2» (T1-T17 eta T14-T18 tarteak) linea elektrikoak –energia elektrikoaren garraiorako zirkuitu sinpleko 220kV-eko aireko lineak– aldatzeko proiektua, Bizkaiko Alonsotegi eta Bilbo udalerrietan, eta proiektu horri dagokion ingurumen-inpaktuaren azterketa, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. artikuluan adierazitakoaren arabera, egoki irizitako alegazio guztiak aurkezteko.

Jendurreko informazioaren izapidea burututa, Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saileko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak adierazten du zenbait alegazio jaso direla.

Halaber, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 37. artikuluan xedatutakoa aplikatzeko, Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak kontsulta egin zien eragindako administrazio publikoei eta interesdunei; emaitza espedientearen jasota dago.

2025eko uztailaren 18an, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saileko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak egindako eskaera jaso zen, proiektuari (hau da, «Alonsotegi Basauri 2» / «Basauri Güeñes 2» zirkuitu bikoitzeko 220 kV-eko aireko linea elektrikoa aldatzea, T-1 eta T-17 eta T-14 eta T-18 euskarrien artean, Alonsotegi eta Bilbo udalerrietan) buruzko ingurumen-inpaktuaren adierazpena egin zedin, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko Legean (abenduaren 9ko 10/2021 Legea) eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko Legean (abenduaren 9ko 21/2013 Legea) xedatutakoaren arabera.

Eskaeran, dokumentazio hau aurkeztu da:

- «Energia elektrikoa garraiatzeko zirkuitu sinpleko 220 kV-eko aireko linea ezartzeko proiektua», 2024ko uztailan.
- «Ingurumen-inpaktuaren azterketa. "Alonsotegi Basauri 2" / "Basauri Güeñes 2" zirkuitu bikoitzeko 220 kV-eko aireko linea elektrikoa aldatzea, T-1 eta T-17 eta T-14 eta T-18 euskarrien artean, Alonsotegi eta Bilbo udalerrietan», 2025eko otsailan.
- Jendaurrean erakutsi ondoren, jasotako emaitzei buruzko dokumentuak.
- Eragindako administrazio publikoei eta interesdunei egindako kontsulta-izapidearen emaitzak deskribatzen dituen dokumentua.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan xedatutakoaren arabera, horien xedea da ingurumenean ondorio nabarmenak izan ditzaketen plan, programa eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, ingurumen-babes handia bermatzeko eta garapen jasangarria sustatzeko asmoz.

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legeak (abenduaren 9ko 10/2021 Legea) 76.1 artikuluan ezartzen duena aplikatuz, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta egingo zaie lege horren II.D eranskinean zerrendatzen diren proiektu publiko zein pribatuei. Hemen aztertzen den proiektua eranskin horretako «D3. Energiaren industria» taldean dago jasota, 3.g) apartatuan: «100 kV-eko edo tentsio handiagoa eta 1 km-eko edo gehiagoko luzera duten energia elektrikoaren transmisiorako lineak, eta haiekin loturiko azpiestazioak, eraikitzea, oso-osorik lurzoru urbanizatuaren zorupetik edo dauden komunikabideetatik igarotzen diren lineak izan ezik».

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 35. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa aplikatzeko, Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak, organo substantibo gisa, proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura arrunta egiteko beharrezkoa dena xedatu du. Horretarako, ingurumen-inpaktuaren azterketa bat gehitu du espedientean, jendaurrean jarri da eta eragindako administrazio publikoek eta interesdunek kontsulta publikoen prozeduran parte hartu dute.

Proiektuaren ingurumen-ebaluazioaren espedientean dauden dokumentazio teknikoa eta txostenak azertu ondoren, eta ikusirik ingurumen-inpaktuaren azterketa zuzena dela eta indarrean dagoen araudian aurreikusitako alderdietara egokitzen dela, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak –organo eskuduna baita, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuaren arabera– ingurumen-inpaktuaren adierazpen hau ematen du.

Xedapen hauek hartu dira kontuan: 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 410/2024 Dekretua, abenduaren 3koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ingurumen-inpaktuaren adierazpen hau egitea, ingurumen-ondorioetarako soilik, «Alonsotegi Basauri 2» / «Basauri Güeñes 2» zirkuitu bikoitzeko 220kV-eko aireko linea elektrikoa T-1 eta T-17 eta T-14 eta T-18 euskarrien artean aldatzeko, Alonsotegi eta Bilbo udalerrietan (Bizkaia).

Proiektuaren xedea da Alonsotegi eta Bilbo udalerrietako bi linea elektriko aldatzea: «Alonsotegi Basauri 2» zirkuitu sinpleko 220 kV-eko aireko linea, T-1 eta T-16A N euskarrien artean, eta «Basauri Güeñes 2» zirkuitu sinpleko 220 kV-eko aireko linea, T-14 eta T-18 euskarrien artean.

Horretarako, T-15, T-16 eta T-17 euskarriak desmuntatuko dira, bai eta «Basauri Güeñes 2» aireko linearen 0,694 km eta «Alonsotegi Basauri 2» aireko linearen 0,744 km ere.

«Basauri Güeñes 2»rako proiektatutako linea berriak 4 euskarri berri izango ditu (T-15 N, T-16A N, T-16B N eta T-17 N), eta 0,943 km-ko luzerako eroale berrien linea. Bestalde, proiektuko «Alonsotegi Basauri 2» linea berriak T-2 N euskarri berria eta 0,527 km-ko luzerako eroale berrien linea izango ditu.

Hauek dira aldaketa-proiektuan aurreikusitako lanak:

- Gaur egun dauden T-15, T-16 eta T-17 euskarriak desmuntatzea, 1 m-ko sakonerako zimentuak zulatzea eta lursaila lehengoratzea barne.
- Euskarri berrietarako sarbideak egokitzea edo egitea.
- T-15 N, T-16A N, T-16B N, T-17 N eta T-2 N euskarri berriak muntatzea.
- Lehendik dagoen T-1 euskarria indartzea.
- 485-ALI/63-ST1A (LA-545 CARDINAL AW) fase-eroale berriak ezartzea, «Basauri Güeñes 2» aireko linean, T-15 N eta T-17 N euskarrien artean, 0,943 kilometroko luzerarekin, eta 337-ALI/44-ST1A (LA-380 GULL) fase-eroale berriak ezartzea, «Alonsotegi Basauri 2» aireko linean, T-1 eta T-16A N euskarrien artean, 0,527 kilometroko luzerarekin guztira. Jarraian aipatzen diren kateak instalatuko dira, bai eta motelgailuak eta bereizgailuak ere, beharrezkoa denean:
 - i) 6 lotura-kate simple (sinplex), T-15 N euskarrian.
 - ii) 6 lotura-kate bikoitz (dúplex), 3 lotura-kate simple (sinplex) eta zubi ahulak igarotzeko 3 esekidura-kate T-16A N euskarrian.
 - iii) 6 lotura-kate bikoitz (dúplex), T-16B N, T-17 N eta T-2 N euskarrietan.
 - iv) 3 lotura-kate bikoitz (dúplex) T-1 euskarrian.
- T-14, T-15N eta T-17N eta T-19 kantoietako fase-eroaleak erregulatzea.
- 7n7 AWG lurreko kable berriak ezartzea, T-15 N eta T-17 N euskarrien artean, «Basauri Güeñes 2» aireko linean, 0,943 kilometroko luzerarekin, eta T-1 eta T-16A N euskarrien artean, 0,527 kilometroko luzerarekin guztira, «Alonsotegi Basauri 2» aireko linean. Motelgailuak instalatuko dira.
- T-14, T-15 N eta T-17 N eta T-19 kantoietako lurreko kableak erregulatzea.
- OPGW-Tipo I-17 kA motako zuntz optikozko lurreko kable berria ezartzea T-15N eta T-17N euskarrien artean, 0,944 kilometroko luzerarekin guztira. T 15 N eta T-17 N euskarrien gainean lotune-kutxak eta motelgailuak instalatuko dira.
- Aldaketaren T-15 N, T-18 eta T-1 eta T-16A N tartetean, bateragarriak ez diren espezieen baso-tratamendua eta mozketak egingo dira, bai eta sastrakak eta zuhaixka-landaredia dauden eremuen garbiketa ere.

Lehendik, eta egoera onean, dauden bide pribatuen gainean egingo dira zuhaitzak mozteko eta linea elektrikoa ezartzeko, zaintzeko eta konpontzeko behar diren sarbideak, eta beharrezkoa izan liteke T-15 euskarriarako eta T-16B N eta T-17 euskarrietarako sarbide berriak irekitzea. Zehazki, 2.311 m lehendik dauden sarbideetakoak dira, eta 321 m egin beharreko sarbide berriei dagozkie. Sarbide-zabalera 4 m-koa dela kontuan hartuta, sarbide berriek 1.284 m²-ko azalera hartuko dute.

Bigarrena.– Proiektua gauzatzeko, baldintza hauek ezartzea, zeinak lotesleak baitira, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 78.1 artikuluan zehaztutakoaren arabera:

A) Proiektua garatzeko baldintzak, bai eta neurri babesle eta zuzentzaileak ere, bat etorriko dira indarreko araudiarekin, ebazpen honen hurrengo ataletan ezarritakoarekin, eta, aurrekoaren aurka ez doan guztian, Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saileko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzan proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluaziorako aurkeztutako dokumentazioan aurreikusitakoarekin.

Proiektu honen ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozeduran, kontuan hartu da, proiektuaren sustatzaileak aurkeztutako dokumentazio teknikoaz gain, ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozeduraren fase desberdinetan espedienteari erantsitako txostenen edukia.

B) Proiektua aldatzen edo zabaltzen den kasuetan, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7. artikuluan jasotako aldaketa-araubidea aplikatuko da.

Sortzen diren proiektuaren aldaketa puntualak ere, nahiz eta aurreko paragrafoan aipatutako mailara iritsi ez, ingurumenaren ikuspegitik justifikatu beharko dira. Proiektuak honako hauei dagozkien aldaketak jaso beharko ditu: neurri babesle eta zuzentzaileak, ingurumena zaintzeko programa, aurrekontua eta baldintza-agiria.

C) Ingurumen-ebaluazioko prozeduraren alderdi garrantzitsuak.

Aztergai diren linea zatiak Alonsotegi eta Bilbo udalerrietan daude, Cadagua IV (ES073MAR002920) ur-masaren isurtze-arroan, Ibaizabalgo Unitate Hidrologikoan. Aztergai den eremuaren ipar-mendebaldean Cadagua ibaia igarotzen da; jarduketan erdialdean, berriz, izenik gabeko 6166 erreka dago, eta aurrekora isurtzen ditu urak. Plan Hidrologikoko Eremu Babestuen Erregistroari dagokionez, hornidura-harguneak dituzten masen artean dago Cadagua IV ur-masa; jarduketan inguruko ibilgu guztiak bisoi europarraren interes bereziko eremuetan daude, eta Erreketako errotaren balizko arkeologia-gunea urari lotutako kultura-ondarearen ondare arkeologikoan sartuta dago.

Proiektuaren jarduketa-eremua hegoaldeko antiklinorioko (ES017MSBT017-006) lurpeko ur-masaren gainean dago. Eremuan ez dago hidrogeologia-intereseko lekurik, eta akuiferoak kutsatzeko arriskua txikia da.

Litologiari dagokionez, eremua porositateagatik iragazkortasun txikiko txandakatutako detritikoz osatuta dago. Ukitutako lurzoruen ikuspegitik, euskarrietako batzuk EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialak «basoko» gisa kategorizatutako lurzoruetan sartuta daude.

Eremuak ez du ukitzen Natura 2000 sareko naturagune babesturik, ez eta inbentarioan sartutako beste gune babestu edo natura-interesekorik ere. Halaber, ez dauka EAEko geologia-interesguneen inbentarioan sartutako geologia-interesgunerik edo EAEko igarobide ekologikoen sareko elementurik. Era berean, eremuak ez du ukitzen Naturagune garrantzitsuen katalogo irekian sartutako lekurik.

Aztergai den eremuko ibilgu guztiak bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) interes bereziko eremutat jotzen dira, 2016ko maiatzaren 6ko Aginduaren arabera (agindu horren bidez, arriskupean dauden hegazti-espezieen ugalketa, elikadura, sakabanatze eta kontzentrazioko lehentasunezko

eremuak mugatzen dira, eta abifaunaren babes-eremuak argitaratzen dira). Ingurumen-inpaktua-
ren azterketaren arabera, jarduketa-eremua faunaren ikuspegitik biodibertsitate handirik ez duen
eremu antropizatu batean dago.

Bestalde, jarduketaren xede diren linea zatiak abifaunaren babes-eremuaren (ABE) barruan
daude; zehazki, abifauna goi-tentsioko aireko linea elektrikoen aurka talka egitetik eta linea
horietan elektrokutatzetik babesteko eremuan. Aipatutako eremuetan, goi-tentsioko aireko linea
elektrikoetan ez elektrokutatzeko edo talka ez egiteko neurriak aplikatuko dira, Hegaztiak goi-ten-
tsioko linea elektrikoekin talka egitetik eta elektrokutatzetik babesteko neurriak ezartzen dituen
abuztuaren 29ko 1432/2008 Errege Dekretuari jarraikiz.

EUNIS 2019ko (geoEuskadi) habitaten kartografiaren arabera, lineak, nagusiki, txilardi atlanti-
koetatik igarotzen dira (otea –*Ulex sp.*– eta eraikuntza eta eremu artifizializatuak dira nagusi), eta,
neurri txikiagoan, iraleku atlantiko eta subatlantikoetatik eta konifero-sail gazteetatik. Lehendik
dauden bideak haritz (*Quercus robur*) hostotsuen baso gazteetatik, pinuen (*Pinus radiata*) landa-
ketetatik, txilardi atlantikoetatik (otea –*Ulex sp.*– da nagusi) eta iraleku atlantiko eta subatlantiko
muintarretatik igarotzen dira. Aztergai den eremuko txilardiak Batasunaren intereseko habitat
(BIH) gisa katalogatuta daude (4030 Europako txilardi lehorrak). GeoEuskadiren kartografiaren
arabera, ez dago flora babestuko espezierik.

Linea aldatuko den eremua Kastrexanako eta Alonsotegiko ikus-arroetan dago, eta arro horiek
ez daude EAEko Paisaia Berezi eta Bikainen Katalogoan (Eusko Jaurlaritza, 2005). Eremuan,
onura publikoko 1. zenbakiko mendiari dagozkion orbanak daude.

Interes arkeologikoko elementu ugari ere badaude, bai eta eraikitako intereseko elementu asko
ere, eta jarduketetatik hurbilen dagoena Erreketako errota da. Gainera, T-17 euskarria Enkarte-
rriko Done Jakue Bidetik gertu dago.

Aztergai den eremuaren ekialdeko zatiak lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten lurzoruen
inbentarioan sartutako lurzati bat du (48020-00085 kodea, zabortegiari dagokiona).

Ingurumen-arriskuei dagokienez, T-17 euskarria 10 urteko errepikatze-denborako uraldien
uholde-arriskuko eremuan dago, lehentasunezko fluxu-eremuan. Baso-sutearen arriskuari dago-
kionez, aztergai dugun eremuaren hego-mendebaldeko eremuak arrisku handia eta oso handia
du. Salgai arriskutsuak garraiatzeko arriskuari erreparatzen badiogu, jarduketa-eremuaren zati bat
arrisku ertaina duen errepide baten 600 metroko eragin-bandan dago. Eremua ez dago 2012/18/
EU Zuzentaraua (SEVESO III Zuzentaraua) betetzeko derrigortasuna duten industrien eragin-ban-
den barruan. Higadura errealeko RUSLE ereduaren arabera, jarduketa-eremuak higadura-maila
oso txikiko eta lurzoru-galera onargarriko eremuak ditu, ekialdeko eremuan izan ezik; izan ere, hor
muturreko higadura-prozesuak dituzten lekuak daude. Eremuak ez du sismikotasunarekin lotutako
arrisku handirik.

Proiektuaren izaera eta ezaugarriak kontuan hartuta, inpaktu esanguratsuenak obra-fasean
gertatuko dira; besteak beste, gauza hauek egin behar direlako: bide berriak egokitzea, euskarriak
desmuntatu eta muntatzea, zimendu batzuk eraistea eta beste berri batzuk egitea, aireko kableak
eraistea, linea berria instalatzea eta materiala eta makineria garraiatzea. Hori dela eta, lur-mugi-
menduak egingo dira, belar-sastrakak kenduko dira, landaredia moztu eta inausiko da eta lurzoruen
okupatuko dira. Ondorioz, fase honetako jarduketek eragina izango dute landaredian, intereseko
fauna-habitatetan, konektagarritasun ekologikoan, Batasunaren intereseko habitatetan, lurzorue-
tan eta kultura-ondarean. Gurutzaketa batzuk jabari publiko hidraulikoaren gainean egingo dira,
eta uren kalitateari eragiteko arriskua egongo da, ustekabeko isurketengatik edo partikulak arras-
taka eramateagatik. Gainera, fase honetan, obrekin lotutako jarduketek zaratak eragingo dituzte.

Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, eragindako landarediaren guztizko azalera 12.621,3 m²-koa izango dela kalkulatu da. Horietatik 4.215 m² artea, haritza, gartxua, gurbitza eta espezie autoktono hostoerokorrak (gereziondoa, astigarra, sahatsa, urkia...) inaus-teari dagozkie, eta 8.495,3 m² autoktonoak ez diren zuhaitzak mozteari (pinua eta akazia). Batasunaren intereseko habitatei (BIH) dagokienez, «4030 Europako txilardi lehorrak» BIHaren 16.513 m²-ko azalerari eragingo diote jarduketan aldi baterako okupazioek.

Aldi baterako okupatuko diren eremuak (lan-plataformak, mozketa- edo inausketa-eremuak, etab.) 37.538 m²-ko azalera hartuko dute. Bestalde, lehendik dauden 3 euskarriak (T-15, T-16 eta T-17) kentzeak aurrez okupatuta zegoen lurzorua 229 m² askatzea ekarriko du, eta 5 euskarri berriak (T-2N, T-15N, T-16A N, T-16B N eta T-17N) jartzeko okupazio iraunkor berri bat, 925 m²-koa.

Euskarrien zimenduak induskatu eta hormigoiztatzeko, euskarri bakoitza jartzeko behar den batez besteko indusketa-bolumena 22,90 m³-koa da, baldintza normalean. Aurreikuspenen arabera, hondeaketa-soberakinen guztizko bolumena 171 m³-koa izango da. Alde horretatik, ingurumen-inpaktuaren azterketak adierazten du landare-lurra obran sortutako gainazalean berreskualdiko dela gehienbat.

Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritzak onargarritzat jotzen ditu landarediaren gaineko eraginak, baina komenigarritzat jotzen du lehengoratzeari; horretarako, proposatzen du zuhaitz- eta zuhaixka-espezie autoktonoak landatzea obrek aldi baterako eragindako eremuetan eta eraginik gabe geratzen diren egungo linea elektrokoaren azpiko eremuetan.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza Nagusiak uste du nekazaritza-sektorearen gaineko eragina bateragarria dela txosten honetan geroago jasotzen diren neurri zuzentzaileak aplikatzearekin.

Hidrologiari dagokionez, gaur egun, aireko lineak bi aldiz zeharkatzen du izenik gabeko 6166 erreka, eta, aldaketaren ondoren, aireko gurutzagune bakarria izango du ibilgu horren gainean. Bestalde, ingurumen-inpaktuaren azterketaren arabera, proiektatutako jarduketa bakar batek ere ez du drainatze-sarea aldatuko. Nolanahi ere, ibai-sarea zeharkatuko den toki horietan eta gainerako jarduketetan, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren (2022-2027) araudian eta Uren Legean xedatutakoa bete beharko da.

Faunari dagokionez, aurreikusitako trazadura berriak bisoi europarrarentzat (*Mustela lutreola*) interes bereziko eremua (IBE) den ibai-ibilgu bat zeharkatzen du, eta, beraz, haren kudeaketa-planean xedatutakoa bete beharko da.

Kultura-ondareari dagokionez, BFaren Kultura Ondarearen Zerbitzuak jakinarazi du aireko linea gertu dagoela Arraiz mendiko instalazioen multzotik, eta multzo hori Euskal Kultura Ondarearen EAeko Erregistroan inskribatuta dagoela. Gainera, gomendatzen du prospekzio intentsiboa egi-tea T-15, T-2N eta T-16 euskarri berriak kokatuko diren eremuak eraikitzeke obren aurretik.

Funtzionamendu-fasean, inpaktu nagusiak linearen presentziaren ondoriozkoak izango dira – paisaiari eragingo diote, bai eta, talka egiteko eta elektrokutatzeke arriskuagatik, abifaunari ere–, eta linearen mantentze-lanetatik eratorritakoak ere bai.

Proiektuaren eremua 2016ko maiatzaren 6ko Aginduan ezarritako abifaunaren babes-eremuen barruan dagoenez, ingurumen-inpaktuaren azterketak adierazten du linearen diseinuak elektrokuzioaren aurkako neurriak jasotzen dituela –dagoeneko martxan zeuden lehendik dagoen trazaduran–, bai eta linearen trazadura berrian txori-babesak instalatzeko aurreikuspena ere, 1432/2008 Errege Dekretuaren xedapenen arabera (dekretu horrek ezartzen du talken aurkako

neurriak hartu behar direla goi-tentsioko linea elektriko berrietarako). Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritzari egokiak iruditzen zaizkio neurri horiek, baina komenigarritzat jotzen du «Alonsotegi Basauri 2» eta «Basauri Gueñes 2» lineen luzera osoan txoriak babesteko instalazioa jartzea.

Paisaiaren gaineko eraginari dagokionez, funtsean lehendik dagoen trazadura bat berritzen denez, inpaktua lehengoaren antzekoa izatea aurreikusten da, eta, horrenbestez, ez da adierazgarritzat jotzen.

Baldin lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak jasaten dituzten edo jasan dituzten lurzoruen inbentarioan sartutako lurzatietan esku hartu behar bada, jarraipen berezia egingo da, kutsatuta egon daitezkeen lurzorua behar bezala kudeatu daitezkeen.

D) Babes- eta zuzenketa-neurriak.

Proiektua garatzeko baldintzak, bai eta babes- eta zuzenketa-neurriak ere, indarrean dagoen araudiarekin eta hurrengo apartatuetan adierazitakoarekin bat etorriko dira, eta, esandakoaren aurkakoa ez den orotan, sustatzaileak Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzan proiektuaren ingurumen-inpaktua ebaluatzeko aurkeztutako dokumentazioan aurreikusitakoarekin.

Neurri horiek eta kontrolerako esleitutako langile kopuruak nahikoak izan behar dute ingurumen-inpaktuaren azterketan finkatutako kalitate-helburuak eta txosten honetan finkatutakoak bermatzeko.

Neurri horiek guztiak sartuko dira obrak kontratatzeke eraikuntza-proiektuen baldintza-agirietan eta planoetan, eta beteko direla bermatzeko adinako aurrekontua izango dute. Era berean, obretako jardunbide egokiak aplikatuko dira.

D.1.– Natura-ondarerako eragina gutxiagotzeko neurriak.

D.1.1.– 1432/2008 Errege Dekretuak mugatu egiten du linea elektriko berrietan talken aurkako neurriak hartzeko betebeharra; nolahi ere, komenigarritzat jotzen da txori-babesak instalatzea «Alonsotegi Basauri 2» eta «Basauri Gueñes 2» lineen luzera osoan.

D.1.2.– Hegaztien ugaltze-garaian (martxoaren 1etik abuztuaren 15era) eragiketak hasi aurretik lan egitea aurreikusten den euskarrietan, sustatzaileak obra-eremutik 250 metrora espezie mehatxatuen habiarik ez dagoela ziurtatu beharko du, adituekin egindako prospekzioen bidez.

D.1.3.– Zerrenda horretan espezie mehatxatuen ugalketa-guneren bat aurkituz gero, Bizkaiko Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio ahalik eta azkarren, betiere eragiketak hasi aurretik, eta hark beharrezkotzat jotzen dituen muga guztiak ezarri ahal izango ditu aurkitutako abifauna-nukleoak kontserbatzeko.

D.1.4.– Egin nahi diren zuhaitz autoktonoen mozketak edo inausketak aldeztu aurretik baloratu beharko dituzte Bizkaiko Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuko teknikariek.

Ahal izanez gero, inausketa horiek geldialdi begetatiboan egingo dira (udazken-neguan), eta zuhaitzak ondo osatuta eta orekatuta utzi beharko dira.

D.1.5.– Zuhaitz autoktonoetan eragin txikiena duten sarbide-aukerak hautatu beharko dira.

D.1.6.– Jarduketa-esparruan, bisoi europarraren interes bereziko eremutzat hartutako ibaiertzeko eremuak daude, BFAk xedatutakoarekin bat (118/2006 Foru Dekretua, Foru Aldundiarena,

ekainaren 19koa; beraren bidez Bisoi Europarraren, *Mustela lutreola* (Linnaeus, 1761) Kudeaketa Plana onetsi da, Bizkaiko Lurralde Historikoan, galtzeko arriskuan dagoen espeziea den eta babesteko neurri bereziak behar diren aldetik).

Bisoi europarraren aleengan eragina izan dezakeen ezer egin aurretik, xedapen hauek kontuan hartuko dira: azaroaren 25eko 9/2021 Legea, EAEko natura-ondarea kontserbatzeari buruzkoa; uztailaren 9ko 167/1996 Dekretua, Basa eta itsas fauna eta landaredian arriskuan dauden espezieen EAEko Zerrenda arautzeko duena; eta, dagokionean, foru-organo eskudunak, bisoi europarraren kudeaketa-planaren administrazio arduradun gisa, xedatzen duena.

Ondorio horretarako, bisoi europarraren interes bereziko eremuari eragiten dioten obrak ez dira egingo espeziearen ugalketarako sasoi kritikoan; hau da, martxoaren 15etik uztailaren 31ra.

D.1.7.– Sustatzaileak obren egoeraren eta aurrerapenaren berri eman beharko du aldizka, obrak egiten diren bitartean.

D.1.8.– Kontuan izan beharko da 630/2013 Errege Dekretua, espezie exotiko inbaditzaileen Espainiako zerrenda arautzen duena. Eragiketarako erabiltzen diren makina guztiek garbi egon beharko dute, lokatz- edo lur-arrastorik gabe, inguruan koka daitezkeen espezie inbaditzaileen propagulu edo haziak hedatzeko arriskurik ez izateko.

D.1.9.– Sustatzaileak espezie exotiko inbaditzaileak gabe mantendu beharko du, oro har, proiektuaren xede diren lineen zortasun-kalea, eta, bereziki, *Cortaderia selloana* espeziearen alerik gabe.

D.2.– Paisaia babesteko eta eragindako lekuak lehengoratzeko neurriak.

D.2.1.– Obra-leku bakoitzean lurra mugiarazi dituzten lanak amaitutakoan, jarduketan eraginpeko lursailaren lehengoratze edafiko eta geomorfologikoa egingo da.

Proiektua gauzatzean eragindako gune guztiak lehengoratu egingo dira (aldi baterako pila-keta-eremuak,aldi baterako lurzoru-okupazioak eta abar), bai eta, linea kendu delako, eraginik gabe geratuko diren gaur egungo linea elektrikoaren azpiko eremuak ere. Landareztatze-lanak espezie autoktonoekin egingo dira; horrela, habitat naturalak sortzen lagunduko da, eta, ahal dela, horien inguruan dagoen landaredi naturalarekin lotuko dira.

D.2.2.– Lehengoratze edafikoa egiteko lanek dirauten bitartean, kontrol-neurriak hartuko dira landare-espezie exotiko inbaditzaileak detektatzeko eta bertan sartu eta hedatzea eragozteko. Ildo horretan, obran erabiltzen diren makina guztiek garbi egon beharko dute, lokatz- edo lur-arrastorik gabe, inguruan kokatu daitezkeen espezie inbaditzaileen propaguluak edo haziak hedatzeko arriskurik ez izateko. Era berean, landare-estalkia lehengoratzeko erabilitako lurren jatorria kontrolatu beharko da, eta *Robinia pseudoacacia*, *Fallopia japonica*, *Cortaderia selloana* edo beste espezie inbaditzaile batzuekin kutsatuta egon daitezkeen lurra erabiltzea saihestu beharko da. Obrek dirauten bitartean espezie inbaditzaileak ikusten bada, ahal den guztietan desagerrarazi egingo da jarduketa-eremuetatik.

D.2.3.– Ingurua zaharberritu ondorengo bi urteetan, mantentze-lanak egingo dira: lurra aitzurtu, ongarritu, ureztatu eta hutsarteak bete. Ereindako edo landatutako eremuak mantentzeko lanetan, ahalik eta herbizida eta pestizida gutxien erabiliko da, eta prozedura mekanikoei lehentasuna emango zaie.

D.3.– Ura eta lurzorua babesteko neurriak.

D.3.1.– Uren arloan eskumena duen organoak prozedura aplikagarrien esparruan ezartzen dituen baldintzak aparte utzi gabe, ez da inolako isurketarik egingo jabari publiko hidraulikoaren gainean, ez eta haren babeseko zorgunean ere, eta ez dute jasoko lur-mugimenduen soberakinik edo zuhaitz-mozketen edo inausketen hondarririk ere.

D.3.2.– Oro har, ezin da makinarik eta ibilgailurik ibili ur-ibilguetan. Ezin izango da egin sare hidrografikoari eragiten dion sarbiderik.

Proiektuan planifikatutako sarbideak zeharkatzen dituzten erreketan aldi baterako zubiak edo antzekoak jarri beharko dira. Bizkaiko Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuko teknikariek bisita egin ondoren instalatuko dira zubi horiek.

Arau orokor gisa, debekatuta daude urak uhertzea eragin dezaketen jarduerak, eta obrak geldiarazi egin beharko dira meteorologiak premisa hori betetzea eragozten badu.

D.3.3.– Sare hidrografikoan eragin txikiena duten sarbide-aukerak hautatu beharko dira.

D.3.4.– Belardi, laborantza-eremu eta aprobetxamenduetatik erretiratzen den lurzorua gainazaleko geruzaren landare-lur emankorra gainerako indusketa-lurretatik aparte pilatu beharko da, ondoren jatorrizko lekuan jartzeko, beheko geruzetara irauli gabe.

D.3.5.– Makinen, materialen eta abarren erabileraren eraginpean dauden belardi eta laborantza-eremuetan, dagokion berrereintza egingo da. Belardiak berrereiteko, aldeztu aurretik lurra pixka bat landu edo aitzurtu beharko da luraren trinkotasuna desegiteko, era horretan egokiak izan daitezkeen ondorengo berrereintza eta erneketa.

D.3.6.– Hala badagokio, eragindako laborantzak birlandatuko dira, dagozkien kalte-ordainekin.

D.3.7.– Itxiturak eta lurzatietan dauden gainerako azpiegitura-elementuak (drainatzeak, etab.) eta eragindako laborantzak ordeztu behar dira.

D.3.8.– Obrak, bai eta lurzorua erabiltzea eragiten duten eragiketa osagarriak ere, proiektua gauzatzeko behar-beharrezkoa den gutxieneko eremuan gauzatzeko dira. Aipatutako mugeetatik kanpo, ezingo da izan eraginik sarbideak egin, materialak bildu, instalazioak kokatu edo beste edozein jarduketa osagarri egin behar izateagatik, eta ahal bezainbat mugatuko da lanak egiteko makinen eta ibilgailuen zirkulazioa.

D.3.9.– Isurketei dagokienez, bermatu egin beharko da eraikitze-fasean egin daitezkeen isurketa kutsagarriek lurgaineko eta lurpeko ur-ibilguri ez eragitea. Obretan, hidrokarburoen xurgatzaile espezifikoak jarri beharko dira eskura (biribilki modukoa, material pikortatua eta abar), istripuz isuri edo ihesen bat gertatuz gero berehala aplikatu ahal izateko. Halaber, erabat debekatuta dago makinak konpontzea edo makinei olio aldatzea, horretarako berariaz jarritako guneetan ez bada. Obrak egiten ari diren inguruan ez badago azpiegitura egokirik zeregin horietarako, berariazko eremu bat egokitu beharko da. Esparru hori mugatuta egongo da, eta zoria iragazgaitu egin beharko da; era berean, efluentek jasotzeko sistema bat eduki beharko du, lurzorua eta urak ez kutsatzeko.

D.3.10.– Obrako makineria-parkea behar izanez gero, eremuko drainatze-sare naturaletik nahikoa urrun dauden guneetan jarri beharko dira parke hori eta garbigunea, ahal dela inguruan dauden eremu artifizialenetan. Mantentze-lanen eremua drainatze-sare naturaletik isolatuko da. Zola iragazgaitza eta efluentek biltzeko sistema bat izango ditu, olio eta erregaiek lurzorua eta ura ez kutsatzeko. Erregaien zamalanak, olio-aldaketak eta tailerreko

jarduerak ezin izango dira egin horretarako adierazitako eremuetatik kanpo, eremuko akuife-roak kutsatzeko arriskua baitago. Materialak eta ekarkinak aldi baterako metatzeko guneak ibilguetatik urrun kokatuko dira.

D.3.11.– Kontrol-neurriak hartuko dira landare-espezie inbaditzaile sar ez dadin lurra mugitu diren eta landaretzarik gabe geratu diren eremuetan.

D.4.– Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruei buruzko neurriak.

D.4.1.– Eremuko zenbait lurzati agertzen direnez lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan, ekainaren 25eko 4/2015 Legeak (Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzekoak) eta lege hori garatzen duen 209/2019 Dekretuak xedatutakoa bete beharko da.

D.4.2.– Era berean, obrak gauzatzean lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten lekuak detektatzen badira, edo lurzorua kutsatzen duten substantziak daudela pentsatzeko arrazoi sendoak baldin badaude, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean xedatutakoa bete beharko da.

D.5.– Kultura-ondarea babesteko neurriak.

D.5.1.– Aurretiko prospekzioa egingo da T-15, T-2N eta T-16 euskarri berriak kokatuko diren eremuak eraikitzeko obrak baino lehen; izan ere, mendi-inguruneetan daude; zehazki, malda txikiko hegaletan, eta litekeena da hegal horietan ikuspen eskasagatik aurrez identifikatu ez diren aztarna arkeologikoak egotea, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuaren 2025eko maiatzaren 9ko txostenak adierazten duen bezala.

D.5.2.– Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean ezarritakoa ezertan eragotzi gabe, obretan aztarna arkeologikoren bat egon daitekeela pentsarazten duen zerbait aurkitzen bada, lanak eten egingo dira badaezpada, eta berehala jakinaraziko zaio Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailari; hark erabakiko du zer neurri hartu.

D.6.– Hauts-emisioak murrizteko neurriak.

D.6.1.– Obrek irauten duten bitartean, ibilgailuak igaro ondorengo garbitze-lanak zorrotz kontrolatuko dira, bai obren eraginpeko ingurunean, bai obretara sartzeko guneetan.

D.6.2.– Obra-gunearen irteeran, ibilgailuak garbitzeko gailuak jarriko dira, solidoak biltzeko sistema bati konektatuta. Gailu horiek egoera onean mantenduko dira obra-faseak dirauen artean.

D.6.3.– Hezetasun-baldintza egokietan garraiatuko da hondeaketa-materiala, eta zama estaltzeko gailuak dituzten ibilgailuetan, lohi eta partikularik ez barreiatzeko.

D.7.– Zarataren eta bibrazioen ondorioak gutxitzeko neurriak.

D.7.1.– Obra-faseak dirauen artean, ingurumen-inpaktuaren azterketan zehaztutako neurri babesleak ezarri beharko dira, honako gai hauei dagokienez: obretako makinaren mantentze orokorra, zarata eta bibrazioak jatorrian murriztea, zarata egiten den ordu kopurua murriztea, obretan erabilitako tresnak egiten duten zarata kontrolatzea eta abar.

D.7.2.– Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zonifikazio akustiko, kalitate-helburu eta emisio akustikoei dagokienez, obra-fasean erabiliko diren makinak egokitu egin beharko dira kanpoan erabiltzeko makinaren soinu-emisioei buruz indarrean dagoen

legerian ezarritako aginduetara, eta, bereziki, eta hala badagokio, Kanpoan erabiltzeko makinak ingurumenean sortzen dituzten soinu-emisioak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan eta arau osagarrietan ezarritakora.

D.7.3.– Bestalde, proiektua garatzean, eraginpeko eremuan ez dira gaindituko, obrek sortutako zarataren ondorioz, kalitate akustikoko helburuak, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritakoak.

D.7.4.– Egunez bakarrik lan egingo da.

D.8.– Hondakinak kudeatzeko neurriak.

D.8.1.– Proiektua egikaritzen den eta abian den bitartean sortutako hondakinak kudeatzeko, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean eta aplikatu beharreko arau espezifikoetan xedatutakoa beteko da.

Hondakinak kudeatzeko hierarkia-printzipioei jarraituz, hondakinak sortzeari aurrea hartzea sustatu behar da, edo, hala badagokio, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 8. artikuluan ezarritako lehentasun-hurrenkeran kudea daitezela; hau da: prebentzioa, berrerabiltzeko prestatzea, birziklatzea eta balorizatzeko beste modu batzuk, balorizazio energetikoa barne.

Hondakinak deuseztatzeko, ezinbestekoa izango da aldez aurretik behar bezala justifikatzea ez dela bideragarria haiek balorizatzea teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren aldetik.

D.8.2.– Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia ezberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira, eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak ekiditeko.

D.8.3.– Eraikitze- eta eraispen-jardueren ondorioz sortutako hondakinak Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko den otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan eta Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko den ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan aurreikusitakoa betez kudeatuko dira.

D.8.4.– Zabortegira bidali beharreko hondakinak kudeatzeko, Hondakinak zabortegietan utziz ezabatzeko jarduera arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretua eta Hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretua beteko dira.

D.8.5.– Hondeaketako lur eta harri soberakinak kudeatzeko, hierarkiaren printzipioari eta hondakinak kudeatzeko hurbiltasunaren printzipioari jarraituko zaie. Hondeatutako material kutsagabe naturalak direnez, eraginpeko eremua morfologikoki lehengoratzeko erabiltzea baztertu ondoren, balorizatzea lehenetsiko da, honelako lanetarako erabiliz: material horiek behar dituzten gertuko eraikuntza-obra, erauzketa-jarduerak eragindako lursailak birgaitzeko lanak edo beste espazio degradatu batzuk lehengoratzeko lanak. Hala, ez dira ezabatuko betelan-instalazioetan. Horretarako, kontuan izango da urriaren 10eko APM/1007/2017 Agindua, Hondeatutako material naturalak betelanetan eta jatorri-obretatik kanpoko beste obra batzuetan erabiltzeko balorizazio-arau orokorreari buruzkoa.

D.8.6.– Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen hondakinen kasuetan. Hondakin arriskutsuak dituzten edukiontziek edo ontzietan Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen

21. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak beteko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileari eman arte, isuri edo lurrundu ez daitezen. Edukiontzi edo ontzi horiek argi etiketatu beharko dira, irakurtzeko eta ezin ezabatuzko moduan, eta indarrean dagoen araudiaren arabera.

D.8.7.– Aurrekoaren haritik, eremu jakin bat egokituko da hondakin arriskutsuak aldi batean pilatzeko, hala nola olio-potoak, iragazkiak, olioak eta pinturak. Gainera, hondakin geldoak biltzeko berariazko edukiontziak jarriko dira, hondakin arriskutsuen guneetatik bereizita.

D.8.8.– Aipatutako ontziak edo bilgarriak argi eta modu irakurgarri eta ezabaezinean etiketatu beharko dira, bai eta indarreko araudiaren arabera ere.

D.8.9.– Apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 29. artikuluari eta Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraikiz kudeatuko da sortzen den olio erabilia. Erabilitako olioak, baimendutako kudeatzaile bati eman arte, estalpean utziko dira behar bezala etiketatutako andel estankoetan; zola iragazgaitz baten gainean egon beharko dute, kubo txikietan edo ihes eta isuriei aurre egiteko sistemen barruan.

D.8.10.– Araudia errazago betetzeko, lan bakoitzean sortzen diren hondakinak kudeatzeko sistemak izango dira. Lan horien arduradunek kudeatuko dituzte sistema horiek, eta haien ardura izango da, halaber, langileek hondakinak behar bezala erabiltzea. Bereziki, ez da inola ere kontrolik gabeko efluentzerik sortuko erregaiak eta produktuak biltegitzetik, makineria mantentzeko lanak egitetik edo hondakinak erretzetik.

D.9.– Jardunbide onen sistema bat hartzea.

Obrek iraun bitartean, langileek jardunbide egokien sistema bat beharko dute, helburu hauek, besteak beste, ahalik eta hobekien bermatzeko:

- Obraren erabilera-mugak eta makineriaren zirkulazioa kontrolatzea.
- Ongi kontserbatutako landarediaren gaineko eraginak kontrolatzea.
- Hondakinik ez isurtzea eta lurzorua eta ura ez kutsatzea olio-isurketen edo lur-arrasteen ondorioz.
- Obretan sortutako hondakinak era egokian kudeatzea.
- Proiektuaren eraginpeko eremuaren inguruko biztanleei zaratak eta hautsak eragindako eragozpenak saihestea.

D.10.– Obra garbitzea eta amaitzea.

Obrak amaitutakoan, garbiketa-kanpaina zorrotza egingo da, eta proiektuaren eraginpeko eremuak inolako obra-hondarrik gabe geratu beharko du. Sortzen diren hondakinak atera egingo dira eremutik, eta ebazpen honen aurreko ataletan hondakinen kudeaketari buruz xedatutakoaren arabera kudeatuko dira.

D.11.– Ingurumen-aholkularitza.

D.11.1.– Obra amaitu arte eta obraren bermealdian zehar, obra-zuzendaritzak aholkularitza bat eduki beharko du, ingurumen-gaietan eta neurri babesle eta zuzentzaileetan kualifikatua. Obra-zuzendaritzak ebazpenik eman behar badu, baldintza-agiriak horrelako gaien inguruan esleitzen dizkion funtzioak erabiliz, aholkulariek txostena egin beharko dute aldeztu aurretik.

D.11.2.– Ingurumen-aholkularitzak, gainera, jardunbide egokien kontrola egingo du, obra gauzatzean. Besteak beste, proiektuaren ekintzen eragina egiaztatuko du, bereziki honako hauei dagokienez: makinen mugimenduak, hauts- eta zarata-sorrera, hondakin-kudeaketa, ibai-ibilguen babesa eta natura-ondarearen kontserbazioa.

D.12.– Lan-programaren diseinua.

Obrak hasi aurretik, kontratistak proposamen zehatzak egingo ditu ondorengo azpiapartatu hauetan jasotako alderdiei buruz, gutxienez.

Proposamen horiek lanak gauzatzeko programan sartuta geratuko dira, eta obra-zuzendariak espresuki onetsi beharko ditu, ebazpen honen D.11 atalean aipatzen den ingurumen-aholkularitzaren txostena jaso ondoren. Dokumentu hauek bilduko ditu aipatutako programak:

- Kontratistaren instalazioen eremuen kokalekuari eta ezaugarriei buruzko xehetasunak, pilaketak behin-behinean biltzeko eremua, makineria-parkeak, instalazioak eta materialak, ibilgailuak garbitzeko eremuak eta beste edozein azpiegitura adierazita.
- Xehetasun-kartografia bidez, zehatz-mehatz zedarrituko dira obrak gauzatzeko nahitaez bota behar ez diren zuhaitz autoktonoak eta intereseko habitatak.
- Hala badagokio, habien kokapenari edo intereseko fauna-aleen presentziari buruzko xehetasunak.
- Ibilgailuak garbitzeko gailuen kokapena eta ezaugarriak.

E) Ingurumena Zaintzeko Programa.

Sustatzaileak proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko aurkeztutako dokumentazioan aurreikusitakoaren arabera gauzatu da Ingurumena Zaintzeko Programa, eta ondoren zehaztuko diren kontrol hauek erantsi behar zaizkio.

Programa horrek obra kontratatzeke baldintza-agirietan sartuta egon behar du, eta bete ahal izatea bermatuko duen aurrekontua izango du.

E.1.– Gorabeheren erregistroa.

Obrak egin ahala sortutako gorabeheren erregistroa egin beharko da, baita babes- eta zuzenketa-neurrien betetze-mailarena ere. Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzaren eskura egongo da erregistroa, hark ikuskatzeko, eta, nolana ere, lanak amaitutakoan, hari bidaltzeko, dagokion organoaren bidez. Proiektua gauzatzean egin diren aldaketa puntualak –halakorik egin bada– xehetasunez dokumentatu beharko dira. Ingurumenean duten eraginaren ikuspegitik justifikatu egin beharko dira aipatutako aldaketak.

E.2.– Obraren okupazio-mugen kontrola.

E.2.1.– Egiaztatu egingo da lanen eremua proiektuko aurreikuspenekin bat datorrela; obrek ez dute hartuko aurrez ikusitako azalera baino eremu handiagoa.

E.2.2.– Era berean, instalazio lagungarrien eremuen kokapen egokia eta egoera kontrolatuko da, bai eta soberakinen biltegiena eta, halakorik badago, makineria-parkearena ere; gainera, bermatu egingo da horiek guztiek neurri zuzentzaile egokiak dauzkatela (drainatzea, dekantazio-sistemak, gurpilak garbitzeko sistemak, etab.).

E.3.– Ingurumena zaintzeko programari buruzko agiri bategina.

E.3.1.– Sustatzaileak Ingurumena Zaintzeko Programaren dokumentu bategin bat pres-tatu beharko du, zeinak jasoko baititu ingurumen-inpaktuaren azterketan proposatutako betebeharrak guztiak eta proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena formulatzen duen ebazpenean ezartzen direnak.

Kontrolatuko diren parametroak eta parametro bakoitzerako erreferentziako balioak zehaztuko dira programa horretan, bai eta beste hauek ere: laginketarako eta analisirako metodologia; kontrol-puntuaren kokalekua xehetasunezko kartografian; kontrol horien maiz-tasuna, eta guztia gauzatzeko aurrekontuaren xehetasunak.

Obra kontratatzeko baldintza-agirietan sartuta geratu beharko du programak.

E.4.– Ingurumena Zaintzeko Programaren emaitzak.

E.4.1.– Ingurumena Zaintzeko Programaren emaitzekin batera, ingurumen-gaietan espezia-lizatutako entitate batek egindako txostena aurkeztu beharko da. Txosten horrek emaitzen analisia jasoko du –aipamen berezia egingo die aldi horretan izandako gorabehera garran-tzitsuenei, haien balizko kausei eta konponbideei–, bai eta laginak hartzearen xehetasunak ere, aurrez zehaztu ez diren kasuetan.

E.4.2.– Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2021 Legearen 52.2 artikuluan xedatutakoa betez, baldintzak edo ingurumen-inpaktuaren adierazpenean ezarritako pre-bentzio- eta zuzenketa-neurriak betetzeari buruzko jarraipen-txostenean, ingurumena zaintzeko programan aurreikusitako neurriak egiaztatzeko zerrenda bat jasoko da. Bai Ingurumena Zaintzeko Programa eta bai egiaztapen-zerrenda publiko egingo ditu organo substantiboak bere egoitza elektronikoan, eta ingurumen-organoari argitalpen horren berri emango zaio.

E.4.3.– Ingurumena zaintzeko programaren barruko txosten eta analisien emaitzak behar bezala erregistratuko dira. Kasu bakoitzean aplikatzekoa den araudia alde batera utzi gabe, proiektuaren sustatzaileak gutxienez bi urtez gordeko ditu datuak euskarri egoki batean, eta administrazio publikoetako ikuskapen-zerbitzuen eskura egongo dira.

E.5.– Sustatzaileak aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Sustatzaileak jarraian aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dizkio organo substantiboari, ingurumen-organoari helarazteko:

E.5.1.– Obrak amaitu eta bi hilabeteko epean, obrak garatu bitartean sortutako gorabehe-ren erregistroa, babesteko eta zuzentzeko neurriak zein neurritaraino bete diren jasoko duena, txosten honen E.1 paragrafoan aurreikusitakoaren arabera.

E.5.2.– Obrak amaitu eta bi hilabeteko epea igaro baino lehen, ingurumen-jarraipenari buruzko txostena, txosten honen E.4 apartatuan adierazitakoa.

F) Baldin eta arautegi berria indarrean sartu dela-eta edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharra dela-eta kome-nigarria bada, aldarazi ahal izango dira babes- zein zuzenketa-neurriak eta ingurumena zaintzeko programa, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipa-tutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Ingurumen-organoak, era berean, alda ditzake babes- eta zuzenketa-neurriak eta Ingurumena Zaintzeko Programa,

jardueraren sustatzaileak hala eskatuta eta organo substantiboaren bidez, edo ofizioz. Hori guztia, Ingurumena Zaintzeko Programan lortutako emaitzetan oinarrituta egingo da, edo sortu daitezkeen ingurumen-inpaktuen aurrean ezarri diren babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak nahikoa ez direla egiaztatzen bada.

Hirugarrena.– Proiektua gauzaten hasteko epea lau urtekoa izango da, ingurumen-inpaktuaren adierazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik aurrera. Epe hori igaro eta proiektua gauzaten hasi ez bada, ingurumen-inpaktuaren adierazpen honek galdu egingo du indarra, eta utzi egingo dio dagozkion ondoreak sortzeari. Kasu horretan, sustatzaileak berriro hasi beharko du proiektuaren ingurumen-inpaktua ebaluatzeko izapidea, aipatu epea luzatzea adosten ez bada behintzat. Hori guztia, bat etorritik abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 78.5 artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 43. artikuluan ezarritakoarekin.

Laugarrena.– Aurreko atalean xedatutakoaren ondoretarako, proiektuaren sustatzaileak behar besteko aurrerapenarekin jakinarazi beharko dio ingurumen-organuari noiz hasiko den proiektua gauzaten.

Bosgarrena.– Ebazpen honen edukiaren berri ematea Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzari.

Seigarrena.– Ingurumen-inpaktuaren adierazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 8a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,
NICOLAS GARCIA-BORREGUERO URIBE.